

Espediente-kodea: 2024ZDK00009

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekainaren 6an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

“9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko HOMtao artzain txaboletan egindako lanak diruz-laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen-proposamena

Alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 3ko proposamenak honela dio:

“ Oñatiko HOMtak artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena. **Espedientea ESKUA**2024ZDK00009

2024ko ekainaren 4ko dataz Udaleko Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikariak den Aitor Gerenabarrena Osak egindako egiaztagiriak honela dio:

- 2024ko maiatzaren 14ko Landa Garapen batzordeak honako proposamena egin zuela:

Oñatiko HOMtak artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena

2024ko otsailaren 29an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko dirulaguntza deialdia onartu ziren.

Deialdia 2024ko martxoaren 19an argitaratu zen GAOn, hortaz, eskaerak aurkezteko epe-muga maiatzaren 6a arte izan da.

Dirulaguntza gehigarri honen xedea da: Batasunaren intereseko diren mendiko larreak kontserbatzea, besteak beste, gainbehera etorri diren jarduera tradizionalei eutsita, abeltzaintza estentsiboa era aktiboan kudeatuta. Laguntzen lerro honen bidez abeltzaintza estentsiboa lagundu nahi da, halaber, artzain txabolak hutsik egon beharrean, erabilera emanda Udal-ondarea kontserbatzen eta mantentzen lagundu nahi da.

Eskaera bakarra jaso da: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak egindakoa.

Oinarri arautzaileen 4. atalak xedatutakoaren arabera, laguntza hauen onuradunak izango dira Oñatiko Herri Onura Mendietan dauden artzain txabolen erabiltzaileak. 2023ko urriaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz, Tellatxabola I eta II izeneko artzaintza-txabolak erabiltzeko kontzesioa Miren Itziar Ugarte Ugarte andreari ematea erabaki zen. Hortaz, onuradun izateko baldintzak betetzen ditu.

Miren Itziar Ugarte Ugarte andrearen izenean dagoen ES200590070093 Elorrixa ustiategiak betetzen du oinarri arautzaileen 5. atalak xedatutakoa "Nekazaritza ustialekuak bete beharreko baldintzak".

Oinarri arautzaileen 8. eta 9. atalek xedatutakoaren arabera ondorengo taulen laburbiltzen da eskaeraren balorazioa eta laguntza proposamena.

gastuaren deskribapena	gastu proposamena BEZa gabe	laguntza kategoria	laguntza %-tan	Esleitutako laguntza €-tan
tximinia konpontzea	570,00 €	7*2	25,00%	142,50 €
barruko hormak raseatzea	2.072,00 €	7*3	25,00%	518,00 €
zoladura hormigoiztatzea	774,80 €	7*3	25,00%	193,70 €
putzu septikoa jartzea	2.310,00 €	7*4	75,00%	1.732,50 €
sarrerako atea jartzea	868,50 €	7*4	75,00%	651,38 €
	6.595,30 €			3.238,08 €
				49,10%

Oinarri arautzaileen 10. atalak xedatutakoaren arabera laguntza emateko ebazpena eman edo, dagokionean, ukatzeko ebazpena Udal Tokiko Gobernu Batzarrak eman beharko du.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari jarraian jasotzen den diru-laguntza proposamena onar dezala:

Lehena: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak egindako eskaera 3.238,08 €-rekin diruz laguntzea.

Bigarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta laguntzaren %100a aurrerakin bezala ematea.

Hirugarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta 2024ko abenduaren 31a aurretik, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko dela gogoraztea, ondoko edukiarekin:

- *.- Jarduera memoria bat, egindako ekintzak biltzen dituen
- *.- Egindako inbertsioei dagozkien fakturak/ziurtagiriak eta, kasua bada, ordainagiriak
- .- Entitate onuradunak lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru-sarrera edo laguntzaren bat jasotzen badu, horren zenbatekoa eta jatorriari buruzko informazioa."

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez."

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.